



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 12a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza arloko eskaintza publikoa definitu eta bermatu dezan Sarrigurenen, 0tik 3 urtera bitarteko ziklotik hasi eta 18 urtera bitarte. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Legebiltzarrean aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala arautu dezan pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan mendekotasun egoeran dauden pertsonen banakako txartela. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da labore ohikoak, ekologikoak eta genetikoki eraldatuak aldi berean egoteari buruzko azterlan bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak bake prozesua abiaraztearen aurka hartutako erabakiari buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (13. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo eskola publikoa maristen ikastetxe itundua baino lehen eraiki dadin hartuko dituen neurriei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Akitania eta Midi-Pyrénées eskualdeekiko harremanak sendotzeko ekimenei buruzkoa, foru parlamentari Fernando María Puras Gil jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko aurreikusita ote dagoen Corellako Alhama BHIn pabiloi bat eraikitzea, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak beste erkidego batzuekiko harremanak sendotze aldera abiatu dituen ekimenei buruzkoa, foru parlamentari Fernando María Puras Gil jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (16. or.).
- Galdera, larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatueterako eta “Iguatorio Médico” izenkorako erabiltzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, euskaltegien aurka egin diren erasoei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzearen gaineko araubideari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko anbulantzien zerbitzu iraunkor bat aurreikusi ez izanari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Uharten arte plastikoetarako eraikin bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko maiatzaren 8an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2006ko ekainaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika lana arautzen duen lege esparrua ezarri zuen, Foru Komunitateko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adinako informazio fidagarria eta alderagarria edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horretan berean, datuen hornitzaileek eta informazioaren erabiltzaileek estatistika lana garatu eta egiten duen organoarekin dituzten harremanak arautzen dira. Bertan, datuak eman beharra, emaitzak egoki argitaratu eta zabaldu beharra eta betiere isiltasun estatistikoa errespetatu beharra ezarri ziren. Era berean, Estatistika Plana estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko baliabide egokia dela adierazten du. Lan hori Nafarroako Estatistika Sistemak egin du.

Aurrerago, ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak garatzeko asmoz, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko azaroaren 19ko 15/1998 Foru Legea onetsi zen, plangintzarako lehenengo tresna gisara, Foru Komunitateko lan estatistikoa bideratu zuena, izan ere, lehenbizi helburuak mugatu zituen eta lehentasunak finkatzeko arau batzuk ezarri, erakunde publikoek eta gizarte agenteek erabakiak hartzeari begira.

Denborarekin, sistema hori sendotu da, 2003-2006 urteetako Nafarroako Estatistika Planari buruzko urriaren 28ko 28/2002 Foru Legeari esker eta aipatutako bi foru legeetan aurreikusita dauden urteko estatistika programei esker.

Azkeneko planaren indarraldia bukatu denez, beste bat onetsi beharra dago, Nafarroako 2007-2010 urteetako estatistika planari buruzko foru lege honen bidez.

Lege testu hau ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenekin bat dator. Helburuen arabera plangintza sistema batean oinarriturik, Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea du helburu, gizarteak eskatzen duen informazio beharrei erantzuteko, adierazleek erakunde publikoei eta eragile ekonomiko eta sozialei eskuratzen dieten informaziotik abiatuta. Ahal den guztietan, genero ikuspuntua sartuko da eta ahalik eta gutxien gastatzea eta dauden iturriak ahalbait gehiena aprobetxatzea bilatuko da, lan bikoizketak saihestuz, herritarrei, enpresei eta erakundeei eragiten zaizkien kalteak gutxituz, isiltasun estatistikoa errespetatuz eta estatistikako informazioa eskura izan eta garaiz jasotzeko aukera egonen dela bermatuz.

Horrez gain, foru lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publikoen zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Institutuak plan hau betetzeko izanen dituen eginkizunak ere.

Azkenik, foru lege honen eranskinetan agertzen dira eragiketa estatistikoen inbentarioa (I. eranskina), Nafarroako Gobernuko departamentuen arabera sailkaturiko eragiketa estatistikoen inbentarioa (II. eranskina) eta eragiketa estatistikoko bakoitzeko fitxa laburtuak (III. eranskina).

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako 2007-2010 urteetako Estatistika Plana.

Nafarroako 2007-2010 urteetako estatistika planak, foru lege honek onesten duenak, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna den aldetik, lankidetzaren instituzionalaren esparrua zehazten du, bereziki Nafarroako Gobernuaren eta honako hauen artean:

- a) Haren erakunde eta enpresak.
- b) Entitate publikoak.
- c) Erakunde nazionalak eta nazioartekoak.

Lankidetzaren horren xedea da Nafarroako estatistika sistema bere inguruko sistemakiko koherentzia, homogeneotasuna eta alderagarritasuna lortzen joatea.

2. artikulua. Indarraldia.

Nafarroako 2007-2010 urteetako estatistika planak, arau honetan bildutakoak, 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitarte izanen du indarra. Plana iraungitzean, hala ere, besterik one-

tsi ez bada, plana hurrengoak indarra hartu arte luzatuko da, salbu eta ezarritako epe edo aldien arabera baztertu behar diren eragiketetan.

3. artikulua. Entitate estatistika-sortzaileak.

1. artikuluko a) letran aipatutako entitateek plan honek eta berau garatzen duten urtean urteko estatistika programek haien esku uzten dituzten estatistikak prestatuko dituzte, zuzenean edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

4. artikulua. Estatistika Planaren koordinazioa.

Nafarroako Estatistika Institutuak estatistika plana eta urtean urteko estatistika programak bultzatuko ditu eta helburu horrekin honako eginkizun hauek beteko:

a) Urtean urteko estatistika programarako proiektuak prestatu eta horien tramitazioa eta onespenera bultzatzea.

b) Estatistika planen eta urtean urteko estatistika programen aginduz, estatistika eragiketak egin behar dituzten Nafarroako administrazio publikoei behar duten aholkularitza teknikoa ematea.

c) Foru lege honek eta berau garatzen duten urtean urteko estatistika programek haren esku uzten dituzten estatistika lan instrumentalak egin edo proposatzea.

d) Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak estatistikak erregulatzeko aurreikusten dituen arau teknikoen proiektuak prestatu eta horien tramitazioa eta onespenera bultzatzea, estatistika planaren eta berau garatzeko emandako urtean urteko estatistika programen arabera haren esku utzi baldin badira.

e) Estatistika planaren eta urtean urteko estatistika programen aginduz estatistikak egin behar dituzten Nafarroako administrazio publikoek lan horiek estatistikari buruzko legeak betetzeko prestatzen dituztela begiratzea.

f) Estatistika lanen kalitatea bermatzea, behar diren egiaztapenak eginez.

g) Informazio eta dokumentazio estatistikokoaren Nafarroako inbentarioa egin eta haren mantentze-lanaz arduratzea.

h) Nafarroako estatistika planean sartuta dauden estatistikaren jarraipena egitea.

i) Estatistikaren arloan behar diren harremanak sustatzea foru lege honen 1. artikuluan aipatzen diren entitateekin.

5. artikulua. Estatistika lanak.

Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira estatistika lantzat:

a) Estatistikak egiteko datu kuantitatibo zein kualitatiboak bildu, lortu, tratatu eta gordetzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko izaera duen beste edozein, Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

b) Aurreko letran zehaztutako aurretikoak edo osagarriak diren jardura instrumentalak, legeak eska ditzakeenak edo teknikoki beharrezkoak direnak estatistikaren arloko legediak ezartzen duena ahal izateko, hau da, estatistikaren arloko prestakuntza espezifikoagokoak, ikerketa lanak eta teknika,, metodologia eta arauak garatzeko jarduerak.

II. KAPITULUA**Estatistika planaren helburuak****6. artikulua.** Planaren helburuak.

Nafarroako 2007-2010 urteetako Planak Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea du helburu, gizarteak eskatzen duen informazio beharrei erantzuteko, adierazleek erakunde publikoei eta eragile ekonomiko eta sozialei eskuratzen dieten informaziotik abiatuta. Ahal den guztietan, genero ikuspuntua sartuko da eta ahalik eta gutxi- en gastatzea eta dauden iturriak ahalbait gehiena aprobetxatzea bilatuko da, lan bikoizketak saihestuz, herritarrei, enpresei eta erakundeei eragiten zaizkien kalteak gutxituz, isiltasun estatistikoa errespetatuz eta estatistikako informazioa eskura izan eta garaiz jasotzeko aukera egonen dela bermatuz.

7. artikulua. Helburu orokorra.

Aurreko artikuluan ezarritako helburu orokorra fun- tsezko eta oinarrizko irizpidea izanen da estatistika planean esku hartzen duten organo guztien- dako erabakiak hartzerakoan, eta foru lege honen eta berau bete eta garatzeko ematen diren xedapenen interpretaziorako irizpidetzat hartuko da.

8. artikulua. Helburu berariazkoak.

Helburu orokorra erdiesteko, helburu berariazkoak ezartzen dira, informazio arlokoak, antolamendukoak eta instrumentalak.

a) Informazio arloko helburu berariazkoak datu eta emaitza estatistikoen beharrak betetzekoak dira.

b) Antolamenduko helburuak administrazio publikoen baliabide eta argibideak zentzuz erabil- tzeakoak dira.

c) Helburu instrumental berariazkoak estatisti- ka egiteko behar diren normalkuntza eta prozedu- ra metodologikoak garatzekoak dira.

9. artikulua. Informazioaren arloko helburuak.

Informazioari dagokionez, hauexek dira helbu- ru berariazkoak:

a) Informazio ekonomikoa handitzea, bilakaera ekonomikoaren jarraipen zehatz eta eguneratua ezarri ahal izateko, lan merkatua eta ekoizpen jar- duna hobeki ezagutzeko bide emanen duten esta- tistikaren bitartez.

b) Demografian eta arlo horrek beste arlo batzuekin duen loturan sakontzea, bereziki lan merkatuari, langileen prestakuntzari, osasunaren arloko plangintzari eta bizilagunen ongizateari dagokienez.

c) Estatistika sozialak sustatzea, eta halaber, bizilagunen bizi kalitatean eragina duten alderdiak hobeki ezagutzen laguntzen duten adierazleak.

d) Ingurumenaren arloko estatistikak garatzea, natur baliabideen egoera, ingurumenaren bilakae- ra eta bestelako fenomeno ekonomiko eta soziale- kin duen lotura zehatz-mehatz ezagutzeko lortzeko.

e) Gizartean sortzen diren informazio behar berriak ezagutzeko sustapen lana egitea, gizartea- ren edozein arlotan ager daitezkeen behar berriei buruzko azterlanak abiaraziz.

10. artikulua. Antolamendu arloko helburuak.

Antolamenduari dagokionez, hauexek dira hel- buru berariazkoak:

a) Nafarroako estatistika sistemaren artikulat- zioa sendotzea honakoak bermatzeko: intimitatea gordetzea, sekretu estatistikoa, egindako estatisti- ken zehaztasuna eta zuzentasun teknikoa, emai- tzen zabalkundea eta segurtasuna informazioa gorde eta ematean.

b) Nafarroako estatistika sistemaren eta Estatu- ko, Europar Batasuneko eta autonomia erkidegoe- tako sistemen arteko lankidetzaren instituzionalaren alde egitea, dauden iturriez baliatu, alderdi guztien intereseko proiektuak egin eta baliabideak aurrez- tu ahal izateko, baita ere herritarrei eta enpresei informazio eskaerak behin baino gehiagotan ez luzatzeko.

11. artikulua. Helburu instrumentalak.

Hauexek dira berariazko helburu instrumenta- lak:

a) Informazio estatistikoa zabaltzeko bideak bultzatzea, Nafarroako estatistika zabalkunderako sistema integratua ezarri ahal izateko eta erabil-tzaileek informazioa eskura izatea errazteko.

b) Nafarroako estatistika publikoaren arloko prestakuntza berariazkorako eta hobekuntzarako behar diren jarduerak gauzatzeko, Nafarroako estatistika sisteman sartuta dauden langileei, baita beste profesional eta erabiltzaileei ere, metodo, teknika eta iturri estatistikoak hobeki ezagutzeko aukera emateko.

c) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, bai alderdi metodologikoetan, bai Foru Komunitatearentzat interesa duten gaitetan, Nafarroako errealtatea (ekonomia, demografia, gizarte egoera, ingurumena eta lurraldea) hobeki ezagutzen laguntzeko.

d) Nafarroako estatistika sistemak emandako informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta alderagarritasuna sustatzea, Estatuko eta Europako sistemak bildutakoarekin alderatuta.

e) Nafarroako informazio estatistikoaren lurralde erreferentziak garatzea.

III. KAPITULUA

Estatistika planaren garapena

12. artikulua. Urteko programa.

Informazioaren arloko helburu berariazkoak urtean urteko estatistika programen bidez garatuko dira. Programa horiek urte bakoitzean egin beharreko jarduerak zehaztuko dituzte.

Helburu instrumental berariazkoak horretarako onetsiko diren programen bidez garatuko dira.

13. artikulua. Estatistikako eragiketa gehiago sartzeko.

1. Salbuespen gisa, eta sartzeko diren programan kokatzeko arrazoiak azalduz, planean agertzen ez diren eragiketak sartu ahal izanen dira urtean urteko estatistika programetan, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako estatistika planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Haien funtsezko osagaiak, bereziki Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2 b) artikuluan aurreikusitako zehaztapenak, agertzen dituen oinarritzko proiektu tekniko bat izatea, bete beharreko jardueren estatistikoen fidagarritasuna bermatzeko.

c) Aplikatzekoak diren zehaztapen teknikoei lotzea.

d) Haren metodologiatik emaitza fidagarriak eta, orobat, beste estatistika batzuekiko alderagarriak lortzeko bide ematea.

e) Bidezkoa den kasuetan, aldizka eguneratzeko aukera ematea.

f) Teknikoki erabili ahal den lurralde bereizketa handienarekin egitea, hori erabilgarritzat jotzen denean.

g) Emaitzak zabaltzeko modua aurreikustea.

2. Estatistika jardueren horiek urteko estatistika programetan sartu eta burutuko dira, betiere, aurrekontu eta antolaketako baldintzen arabera.

3. Urteko estatistika programetan sartutako estatistika jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialak izanen dira, eta horiek prestatzeko eskatzen diren datuak ematea nahitaezkoa izanen da, Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

14. artikulua. Baldintzak.

Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egiten diren eragiketa estatistikoek aurreko artikuluan araututako eragiketei eskatzen zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.

15. artikulua. Urteko Estatistika Programa onestea.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, urtean urteko estatistika programa onetsiko du programari dagokion urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.

Urteko estatistika programaren indarraldia urte naturalarena izanen da, baina luzatu ahal izanen da hurrengo onetsi bitartean, haien izaera dela-eta jarraipena beharrezkoa duten jardueren kasuan.

16. artikulua. Jarraipen txostena.

Nafarroako Estatistika Institutuak urtean urteko estatistika programa bakoitzaren jarraipen txostena egingen du Nafarroako Gobernuak onetsi dezana, bidezko baldin bada.

Era berean, planaren indarraldia bukatutakoan, departamentu bakoitzak egin dituen lan estatistikoak zehazteko Nafarroako Estatistika Institutuari igorri beharreko memorioetan oinarriturik, Nafarroako 2007-2010 urteetako Estatistika plana ebaluatzeko proposamena egingen du, gero Nafarroako Gobernuak onetsi dezana, Nafarroako Estatistikari

buruzko 11/1997 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Aurretik, Nafarroako Estatistika Kontseiluari eman beharko zaio agiri horien berri.

IV. KAPITULUA **Erakundeen lankidetzak**

17. artikulua. Entitate laguntzaileak.

Entitate laguntzaileak izanen dira Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin bi alderdien intereseko helburuetarako hitzarmenak sinatzen dituztenak.

Aipatutako departamentuak, Nafarroako Estatistika Institutuaren bidez, eta entitate laguntzaileek beren intereseko informazio estatistikoa luzatuko diote elkarri, bai eta estatistikak prestatzeko behar den aholku teknikoa emanen ere.

18. artikulua. Nafarroako Estatistika Institutuaren harremanak.

Nafarroako Estatistika Institutuak interesgarria deritzon estatistika lanak egiten dituzten entitate edo erakunde mota guztiengana jotzen ahalko du, Nafarroako 2007-2010 urteetako estatistika planean ezarritako helburuak kudeatzeko.

19. artikulua. Lankidetzak hitzarmenak.

Nafarroako Gobernuak, gure erkidegoan hartutako laginak hobetu ahal izateko, lankidetzak hitzarmenak egiten ahalko ditu estatuko kasuko erakundeekin, horrela haien banakinetan ateratzen diren estatistiken adierazgarritasuna hobetu eta Nafarroari buruzko ustiapen osoagoak egin ahal izateko.

20. artikulua. Lankidetzak teknikorako hitzarmenak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak lankidetzak teknikorako hitzarmenak sinatu ahal izanen ditu 18. artikuluan aipatzen diren entitate eta erakundeekin.

V. KAPITULUA

Emaizak estatistikoen zabalkundea

21. artikulua. Zabalkundea.

Estatistika planaren helburu nagusia estatistiken emaitzak zabaltzea da, betiere sekretu estatistikoa gordeta. Lan horretan, datuen gaurkotasuna eta zabalkundearen lastertasuna hartuko dira kontuan eta informazioko teknologia berriak lehenetsiko dira.

22. artikulua. Informazioa eskura izatea.

1. Nafarroako Estatistika Institutuak estatistika planean eta urtean urteko estatistika programetan dauden estatistiken emaitzak eskura eduki, zabaldu eta argitaratu beharko ditu.

2. Nafarroako Estatistika Institutuak Nafarroako estatistika sistemako beste erakunde eta organoei erraztasunak emanen dizkie, nahi badute, Institutuaren webgunean Nafarroarendako interesgarriak diren estatistiketako emaitzak sar ditzaten, bai zuzenean, bai beste webguneekiko loturen bidez.

Xedapen gehigarria. 2007. urteko Estatistika Programaren onespina.

Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta, beranduenik, hiru hilabeteko epean onetsiko du 2007. urteko estatistika programa.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe uzten dira Nafarroako 2003-2006 urteetako estatistika planari buruzko urriaren 28ko 28/2003 Foru Legea eta foru lege honetan aurreikusitakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduzko garapena egiteko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege honetan aurreikusitakoa garatu eta bete-arazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2007ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko maiatzaren 8an hartutako erabakiaren bidez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2006ko ekainaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan 2007ra arte atzeratu ezin den behar bat sortu da, hots, Sonagar enpresaren Aurreikuspen Teknikoaren Funtsera diru-ekarpena egiteko eskaerari erantzutea.

Behar hori betetzeko, kreditu berezi bat emanen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan xedaturikoarekin bat.

1. artikulua. 3.000.000 euroko kreditu berezi bat ematen da, gastuen kontusail honetatik:

– 121002-13300-7709-923100, "SONAGAR enpresarentzako ekarpenak"

2. artikulua. Aurreko artikuluan aipatzen den kreditu berezia "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailean izan diren dirusarrera handiagoen kontura finantzatuko da.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza arloko eskaintza publikoa definitu eta bermatu dezan Sarrigurenen, Otik 3 urtera bitarteko ziklotik hasi eta 18 urtera bitarte.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza arloko eskaintza publikoa definitu eta bermatu dezan Sarrigurenen, Otik 3 urtera bitarteko ziklotik hasi eta 18 urtera bitarte."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azken hilabeteotan egunkarietan agerturiko informazioen arabera, Maristen ikastetxe pribatu itundua izanen da ziurrenik Sarrigurengo auzunean irekiko den lehen ikastetxea. Hasieran Otik 5 urtera bitarteko hezkuntza eskainiko du, eta 2007-2008 ikasturtean erabilgarri izanen da. Mariaren ordena konfesional katolikoak eskaintzen dituen gainerako hezkuntza zikloak, 18 urtera artekoak, bigarren fasean ezarriko dira, 2008-2009 ikasturtean hain zuzen.

Premiazkoa da sistema publikoak behar den bezala planifikatzea Nafarroa osoko hezkuntza beharrezan. Lehendabizi, zerbitzu publiko hori, hots, hezkuntzako, bermatu behar da herritar

guztientzat, zerbitzu itundua zerbitzu publiko orokorraren ordezkatzailerak eta osagarria baita. Hori dela eta, Sarrigurenen hezkuntzaren arloan esku hartzea premiazkoa dela ikusirik, parlamentu-talde honek aurkeztu du ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hezkuntza arloko eskaintza publikoa ziurta dezan –Otik 3 urtera bitarteko zikloan eta haur hezkuntzan– eta eskaintza hori irakaskuntza itunduarena baino lehen ezar dezan; hala, hezkuntza eredu guztietan hezkuntza arloko eskaintza publiko orokorra ezarri ondoren, eskaintza itundua hezkuntza beharrezan orokorren plangintzaren menpe gera dadin.

2. Sarrigurengo eskola ingurune publikoa zehatz dezan. Eskola-gune horretan ondokoak aurreikusi beharko lirateke:

– Haur hezkuntzako ikastetxe bat, Otik 3 urtera bitarteko zikloa eta 4 eta 5 urteko haurrak hartuko dituena.

– Lehen hezkuntzako ikastetxe bat

– Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxe bat

– Kiroldegia

– Kirol pistak

Eskola-gune horrek ahalbidetuko du 3 urtetik 18 urtera bitarteko haurrak eskolatzea. Halaber, Otik 3 urtera bitarteko zikloko haurrak ere hartuko ditu.

3. Sarriguren haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak eraikitzeke espedientearen izapideak azkar ditzan, Maristen ikastetxe itunduaren eskaintza pribatua baino lehen abian jartzen aldera.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 31n

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Legebiltzarrean aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Legebiltzarrean aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

2008. urtean urari buruzko erakusketa handi bat eginen da Zaragozan. Zalantzarik gabe, ekital-

di hori Ebroko haran osoko gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren errealitatearen erakustoki ezin hobe izanen da, baita herritarren topaleku interesgarria ere. Ospakizun hori aukera bat izan behar da inguruko erkidegoetako eta hirietako errealitate sozial eta instituzionalak bultzatzeko. Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, aukera ageri-agerikoa da, Aragoirekin daukagun hurbiltasun eta harremanarengatik.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan, hain zuzen ere foru erkidegoak ekitaldi horretan izanen duen presentzia eta parte-hartzea bermatuko duen plan bat, zeinak, halaber, foru erkidegoko enpresen, gizartearen eta erakundearen sarearen parte-hartzea ere bideratuko duen. Hori guztia, ospakizun horrek Nafarroari ekarri ahal dizkion onura agerikoak ere zabalitze aldera.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 26an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala arautu dezan pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala arautu dezan pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Foru Komunitateko ezgaitasunak dituzten pertsonak eta pediatriako gaixo kronikoek pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legearen xedeak dira osasuna sustatzea eta babestea, gaixotasunei aurrea hartzea, osasun laguntza ematea, eta errehabilitazio funtzionalerako eta gizarteratzerako beharrezkoak diren ekintzak abiaraztea.

Lege horren oinarria da osasun laguntza uni-bertsala bihurtzea eta, horrenbestez, herritar guztien berdintasuna bermatzea osasun zerbitzu eta prestazioak jasotzeari dagokionez.

Ezgaitasunak dituzten pertsonak eta gaixotasun kronikoak dituzten haurrei dagokienez, bazterkeria eta desberdintasun kasuak izaten dira, eta beharrezkoa da kasu horiei babes berezia ematea. Horren haritik, komenigarria da kontuan hartzea pertsona horiek eta beren familiek beren gain hartu behar duten gainkarga ekonomikoa, batez ere sendagai eta farmazia-produktuen kostuagatik.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala arautu dezan Nafarroako Foru Komunitateko ezgaitasunak dituzten pertsonak eta pediatriako gaixo kronikoek pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea, osasun sistema publikoak finantzatuta.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 25ean

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan mendekotasun egoeran dauden pertsonen banakako txartela.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan mendekotasun egoeran dauden pertsonen banakako txartela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Minusbalotasun mailaren frogatzea errazteko beharra dela eta, komenigarria da mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako banakako txartel bat egotea, administrazio publikoetan nahiz zerbitzu publikoetan erabiltzeko eta era guztietako entitate pribatuekin ere erabiltzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako banakako txartela abian jar dezan, beren minusbalotasun egoera edo gradua frogatu ahal izan dezaten.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 26an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da labore ohikoak, ekologikoak eta genetikoki eraldatuak aldi berean egoteari buruzko azterlan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da labore ohikoak, ekologikoak eta genetikoki eraldatuak aldi berean egoteari buruzko azterlan bat egin dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu

du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Kontuan hartuta gure erkidegoko nekazaritzaren egoera, sektore askotan nekazaritza ekologikoa dela-eta dagoen sentiberatasuna eta haren alde egiten den apustua, bai eta ingurumenarekin eta lurzoruaren erabilerarekin loturiko faktoreak; ulertuta, halaber, garrantzitsua dela nekazaritzamaparen sailkapena eta hari buruz egin daitekeen plangintza, batez ere Nafarroako Ubidea zerbitzuan jartzen den unetik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak onets dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak azterlan bat egin dezan labore ohikoak, ekologikoak eta genetikoki eraldatuak aldi berean egoteari buruz.

Iruñean, 2006ko martxoaren 25ean

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak bake prozesua abiaraztearen aurka hartutako erabakiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuak bake prozesua abiaraztearen aurka hartutako erabakiari buruz foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix Taberna Monzonek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan maiatzaren 22an, Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu zuen bake prozesuaren hasierari buruz. Erabaki horren arabera, Espainiako Gobernuak prozesua ireki izana gaitzesten du, ez

baitira betetzen horretarako baldintza egokiak. Gobernu kontseiluaren eztabaidak isilpekoak dira; hala ere, biharamunean hedabideek UPN eta CDN alderdietako kideen arteko desadostasunen berri eman zuten. Horren ondotik, CDNko kontseilariak agerraldi publikoa egin zuten, alderdiko lehendakariarekin batera, eta erabaki horrekiko desadostasunak zituztela aitortu zuten.

Parlamentari honen eta bere parlamentu-taldearen iritziz, bake prozesuari dagokionez, ahalik eta adostasun maila handiena lortu behar da Nafarroako eragile politikoen artean. Hala ere, Nafarroako Gobernuko kideen artean ere koordinazio falta dagoela ikusten da. Are gehiago, pentsa genezake Nafarroako Gobernuko lehendakariak terrorismoarekin elkarrizketaren bidez amaitzea ez zuela onartzen esanez eginiko adierazpenek ez dute legebiltzarraren gehiengoaren babesik.

Hori dela-eta, galdera hau aurkeztu dut:

– Nafarroako Gobernuko lehendakariaren ustez, betetzen al dira Gobernuaren erabakia gauzatzeko baldintzak, erabakiak beharrezkoa den adostasun mailarik eta babesik ez badu ere?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo eskola publikoa maristen ikastetxe itundua baino lehen eraiki dadin hartuko dituen neurriei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo eskola publikoa maristen ikastetxe itundua baino lehen eraiki dadin hartuko dituen neurriei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman daki-on.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo eskola publikoa maristen kongregazio erlijioso katolikoaren ikastetxe itundua baino lehen eraiki dadin?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Akitania eta Midi-Pyrénées eskualdeekiko harremanak sendotzeko ekimenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FERNANDO MARÍA PURAS GIL JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Akitania eta Midi-Pyrénées eskualdeekiko harremanak sendotzeko ekimenei buruz foru parlamentari Fernando María Puras Gil jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando M.^a Puras Gilek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ekimen abiatu ditu Nafarroako Gobernuak Frantziako Akitania eta Midi-Pyrénées eskualdeekiko harremanak sendotzeko?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Fernando M.^a Puras Gil

Galdera, jakiteko aurreikusita ote dagoen Corellako Alhama BHIn pabiloi bat eraikitzea.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko aurreikusita ote dagoen Corellako Alhama BHIn pabiloi bat eraikitzea. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Corellako Alhama BHIn pabiloi estali bat eraikitzeko, bere ekimenez edota herri horretako udalarekin finantzaketa-hitzarmen bat sinatuta, aipatu udalak proposatu duen moduan?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Nafarroako Gobernuak beste erkidego batzuekiko harremanak sendotze aldera abiatu dituen ekimenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FERNANDO MARÍA PURAS GIL JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuak beste erkidego batzuekiko harremanak sendotze aldera abiatu dituen ekimenei buruz foru parlamentari Fernando María Puras Gil jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando M.^a Puras Gilek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer ekimen abiatu ditu Nafarroako Gobernuak Espainiako beste erkidego batzuekiko harremanak sendotzeko?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Fernando M.^a Puras Gil

Galdera, Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiari buruz foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, eskatzen du presaz tramita dadila ondoren datorren galdera, Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiaren gainekoa, hurrengo Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun diezaien.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea kezkatuta dago Konstituzio Auzitegiak eman duen epaiak izan ditzakeen ondorioengatik; izan ere, epai horretan deuseztatu egiten da Nafarroako funtzionarioentzat 1997ko aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean lansarrietan onetsi zen iagoera.

Eta ez gaude kezkatuta soilik epaiarengatik; izan ere, are kezkarriagoak iruditzen zaizkigu Nafarroako lehendakariak eginiko adierazpenak, zeinetan azaltzen baitu Administrazio Publikoen ministroarekin, egungo oposizioaren burua den Mariano Rajoy jaunarekin, adostu zuela zein jurisdikzio-bidetara jo, ahal zen eta “traba” gutxien aurkitzeko.

Adierazpen horiek, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen iritziz, oso larriak dira, zeren eta aditzera ematen baitute gobernuburuak berak ez duela sinesten botere judizialaren independentzian, eta sinestarazi nahi duela “etxean” aztertzen dena onuragarriagoa izan daitekeela Nafarroako interesentzat.

Neurri horrek “legezko euskarririk ez zuela” zabal iradokitzea bera ere –eta hori gainera lasaitasun osoz planteatu zuen– kaltegarria izan daiteke Nafarroako diru publikoen kutxarako eta, azken batean, Nafarroako herritar guztientzat.

Hori guztia dela eta, galdera hau egin nahi diogu Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan zen gobernuko lehendakariaren jokabidea 1997an, funtzionarioen soldaten igoera planteatu zenean? Zein hitzarmen eta akordio lortu zituen Alderdi Popularrarekin aurkeztu beharreko errekurtsioak zirela eta?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatuetarako eta “Igalatorio Médico” izenekoako erabiltzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatuetarako eta “Igalatorio Médico” izenekoako erabiltzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

1.- Parlamentu-talde honek jakin ahal izan duenez, larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatuetarako eta “Igalatorio Médico” izenekoako erabiltzen dira, eta hori ez da anbulantzia horien eginkizuna. Beraz, zergatik erabiltzen dira zerbitzu hori emateko?

2.- Osasun Departamentuak erregistraturik al ditu azken urtean eginiko halako zerbitzuak?

3.- Osasun Departamentuak egiaztatu badu larrialdietarako anbulantziak nire ustez modu desegokian eta ez arautuan erabili direla, espedienterik ireki al zaie enpresei, pertsoneri edo behar denari anbulantziak behar ez den moduan erabiltzeagatik?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, euskaltegien aurka egin diren erasoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, euskaltegien aurka egin diren erasoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundearen (AEK) euskaltegi-tako bik, Donibane eta Txantrea auzoetakoek hain zuzen, erasoak izan zituzten igande goizaldean.

Ez da lehenengo aldia halako zerbait gertatzen dela; izan ere, azken hiru urteotan dozena erdi eraso baino gehiago jasan dituzte, eta salaketak aurkeztu arren, ez da izan erasotzailea nor izan den argitzeko inolako informazio publikorik.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

– Ba al du Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentuak euskaltegi horietan izandako kalteen egileari buruzko txostenik?

– Hala ez bada, eskatu al zaio Gobernuaren Ordezkaritzari gertakizun horiei buruzko informaziorik?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzearen gaineko araubideari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzearen gaineko araubideari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Iragan 2006ko maiatzaren 26an, Burguete kontseilari jaunak agerraldia egin zuen Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean, babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioa dela-eta Orkoiengo Udalari irekitako espedienteari buruz informatzeko.

Kontseilariak salatu zuenez Sociedad Municipal Iturgain, S.A.-k deuseztatu egin zituela ebatzitako espedienteei buruzko etxebizitza-eskabideak, parlamentari honek galdetu zuen zer araudi den aplikagarria eta, kasua bada, zer zehapen ekar lezakeen agiri horiek deuseztatu izanak. Kontseilari jaunak ez zion nire galderari erantzun, eta nik ez nuen aukerarik izan berriro galdetzeko.

Hori dela eta, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ondoko galderari erantzutea nahi dut:

Nafarroako administrazio publikoetako eta haren sozietate publikoen alorrean etxebizitza babestuak esleitzeko eskabideak gordetzea eta deuseztatzeari buruzkoak zer arauditan daude ezarrita?

Nola jokutzen dute Nafarroako administrazio publikoak eta haren sozietate publikoek etxebizitza babestuak esleitzeko eskabideak gordetzeari eta deuseztatzeari dagokienez? Eskabide guztiak gordetzen al dira? Zenbat denbora? Amaitutako espedienteei buruzko dokumentazioa deuseztatzen al da?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko anbulantzien zerbitzu iraunkor bat aurreikusi ez izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko anbulantzien zerbitzu iraunkor bat aurreikusi ez izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Urte honetan zehar, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren mendeurrena dela eta, Nafarroako Gobernuak hainbat ekitaldi antolatu ditu Xabierren. Horrela, ehunka edo milaka pertsona biltzen dira bertan asteburuetan. Dirudenez, ekitaldi horiek egiten direnean herrian ez dago anbulantzia zerbitzurik gerta litezkeen osasun larrialdiei eran-

tzuteko, eta noiz edo noiz soilik eraman dituzte Zangozan basea duten anbulantziako batzuk.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik ez da aurreikusi anbulantzien zerbitzu iraunkor bat Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko?

Zer segurtasun eta osasun laguntzarako neurri hartu dira elkarretaratze horietarako?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Uharten arte plastikoetarako eraikin bat eraikitzeari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Uharten arte plastikoetarako eraikin bat eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Uharteko Udala arte plastikoetarako eraikin bat egiten hasi zen, eta proiektu hori oso aurreratuta dago. Uharte Arte Zentroa izango denaren –izen hori izanen du, antza denez– kudeaketa-proiektua ere lehiaketara atera du.

Aspaldi, parlamentari honek gai horri buruzko galdera batzuk egin zizkion Nafarroako Gobernuari, eta Kultura Departamentuak 2005eko maiatzaren 5ean Foru Gobernuak arte zentro horretan zuen parte-hartzeari buruz emandako erantzunaren arabera, argi geratu zen Nafarroako Gobernuak ez duela proiektu hori gauzatzeko dirurik jarri. Erantzunean hau aipatzen zen: “Oraingoz, Nafa-

roako Gobernuak ez du laguntza ekonomikorako eskaririk jaso Uharteko Udaletik, eta entitate horrek ez du parte hartu departamentu honek eginitako ezein dirulaguntza-deialditan”.

Erantzun horren arabera, argi geratu da Nafarroako Gobernuak ez du partaidetza ekonomikorik izango Uharte Arte Zentroaren proiektuan.

Baina, antza denez, horren ondotik gauza batzuk aldatu egin dira; izan ere, jakin dugu Kultura Departamentuak jarrera aldatu duela Uharte Arte Zentroari diruz laguntzeari dagokionez.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Uharteko Udalak modu ofizialean jo al du Nafarroako Gobernuarengana Uharte Arte Zentroko dirulaguntza eskatzeko?

- Hala bada, zein baldintzatan eta zertarako eskatu du laguntza hori?

- Zenbat diru eskatu du Uharteko Udalak proiektu hori finantzatzeko?

- Kultura Departamentuak 1.500.000 euro eskaini al dizkio Uharteko alkateari?

- Hala bada, zertarako eskaini du diru kopuru hori?

- Nafarroako Gobernuaren asmoa Uharte Arte Zentroa Nafarroako arte garaikideko zentrotzat hartzekoa al da ?

Iruñean, 2006ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

| | |
|---|---|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA |
| Urtebete 43,95 euro | |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » | |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 » | |